

Donostian, 2018ko azaroaren 5ean

IDAZKARITZA NAGUSIARI

MOZIO ARRUNTA, ULIAKO INGURUMENA ZAINDU ETA ITSASLABARRAREN GARBIKETARI BURUZKOA

Loïc Alejandrok, Irabazi Donostia Udal Taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoko 98. artikulua araberara, hurrengo MOZIOA aurkeztu du OSOKO BILKURAN EZTABAIDA dadin, Uliako ingurumena zaindu eta itsaslabarren garbiketari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Deba-Zumaiako biotopoaren itsaslabarrean duela aste gutxi grabatutako bideo bat aski hedatu da herritarren eta hedabideen artean. Bideoan itsaslabarretako itsas arrasean aurki dezakegun plastiko kopuru izugarria ikus daiteke, eta haren hedapen mediatikoak gizartean horri dagokionez nabaritzen den kezka eta egonezina islatzen du.

Donostian badugu babestutako eremu natural bat, Uliako Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) hain zuzen. Eremu horretan Deba-Zumaia biotopoa diren ezaugarri morfologikoen antzekoak daude eta, batez ere, kutsadura-arrisku beraren eraginpean dago, itsasoak ekarritako plastikoak eraginda. Hau da, aipatu bideoan deskribatzen dena Uliako KBE eremuaren itsas arrasean ere gerta daiteke.

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari Uliako Kontserbazio Bereziko Eremuan ingurumena zaindu eta garbi dadila ziurta dezan, dagozkion instituzioekin elkarlanean.

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.